

# TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

1998ko urria - 25. zenbakia

ESAN  
BAI  
EUSKARARI!!

udaletxea



turismo bulegoa



kirol gunea



hondartza



aparkalekua

hondartza



farmazia



**MOTUL****JULEN  
tailerra****Zerbitzu bizkorra****NEUMATIKOAK  
GAS-TUTULUAK  
BALAZTA ZAPATAK**

Beherapen ederrak

**ZERBITZU BIZKORRA:**


- orioa aldatzea
- irazkina (filtroa) aldatzea
- gas-tutulua
- leungailuak
- neumatikoak
- burpilak orekatzea
- balazta zapatak
- direkzinoa doitzea
- mekanika arloa
- soldatze lanak
- motorea garbitzea (ur beroaz)

**JULEN tailerra**

Artalde, 8

48130 BAKIO

Tfno.-zkoa.: 94 619 48 97

**MOTUL**

## BERBAURREA

"San Simon eta San Juda, joan zan udea eta negua heldu da". Uda giroa atzean dogu. Udagoienak ohi dan anterea ekarri deutso Bakiori. Hutsituagoa, lasuagoa. Herria, urtean zehar bizirik badago be, uda aldian sano ostenduta edo urtuta lotuten da. Zeozelango loralditxua izaten da, geroago, udagoienetik gora. Urterik urtera berau geroago eta gitxiago igarri arren. Herria pertsonak dira, herritarrak, hatan be. Herria bizirik dagoana ikusten danean, herritarren ahaleginei esker izaten da. Herritarrek euren nortasunari eusten deutsoelako-edo. Herri nortasuna bizirik eta osasuntsu euki behar dogu Herri izaten jarraituteko. Hori bertan bertokoen beharra da. Danona eta ez gitxi batzuen. "Euskerea guk dogu, gu gara euskaldunak".

TXIRRITXOLA

## TXIRRITXOLA-25

1998ko urria (hiruhilabetekaria)

## ARGITARATZAILEA

Bakioko Euskera Batzordea

## ZUZENBIDEA

Bakioko Kultura Etxea

Urkizaurralde, 28

48130 BAKIO

Tfno.-zkia: 94 619 40 01 / 619 33 69

Fax-zkia.: 94 619 31 18

## ALE KOPURUA:

600 ale

## LAGUNTZAILEA

Bakioko Udala

## IRARKOLEA

Gráficas Gaubeka

Tfno.-zkia.: 94 625 02 74

Fax-zkia.: 94 625 52 54

48300 GERNIKA-LUMO

**TXIRRITXOLA**

Bakioko Euskera Batzordeak egindako aldizkaria


## ZER-NON

GAIA

ORRIALDEA

|  |    |
|--|----|
| Aurrealdea: Bakion be euskeraz .....           | 1  |
| Iragarkia .....                                | 2  |
| Agurra .....                                   | 3  |
| Berbetan: QUINTA TORRE, zaharren egoitza ..... | 4  |
| Eritxia .....                                  | 6  |
| Zer deritxozu? Nekazaritza Azokea .....        | 7  |
| Zer barri?:                                    |    |
| - AMERIKETATIK, euskal trainerua .....         | 8  |
| - Udaleku irekia .....                         | 8  |
| - Ipuin kontalaria .....                       | 9  |
| - Kultur Etxeko ikastaroak .....               | 9  |
| - Udako bertso afaria .....                    | 10 |
| - Bakioko XII. Musika Astea .....              | 11 |
| - Mendiko ibilaldiak euskeraz .....            | 12 |
| - Nazinoarteko Folklore Jaialdia .....         | 12 |
| - San Migel jaia Zumetzagan .....              | 12 |
| - AEKren ikastaroak .....                      | 13 |
| Argazki erreportaia: San Joan Dolozak 98 ..... | 14 |
| Herrigintzan .....                             | 16 |
| Zaharrak barri .....                           | 17 |
| Taldeen txokoa:                                |    |
| - Itxas-Alde .....                             | 18 |
| - Alaitasuna Pilota Taldea .....               | 18 |
| - Abesbatza .....                              | 19 |
| - Urkitzako gurasoak .....                     | 19 |
| Idaz Lehiaketa 98 .....                        | 19 |
| Txindorra-birigarroa .....                     | 20 |
| Euskerea: Bakioko euskerea-3 .....             | 22 |
| Olerkia .....                                  | 22 |
| Zuhur ibili .....                              | 24 |
| Kultura leihoa:                                |    |
| - Euskal ipuina: UKALBILTXU .....              | 25 |
| - Bakioko liburutegiaren txokoa .....          | 25 |
| Danetarikoak:                                  |    |
| - Datozanak .....                              | 26 |
| - Barregaiak .....                             | 26 |
| - Badaezpadako jakingarriak .....              | 26 |
| - Ezetx jakin! .....                           | 27 |
| Atzera begira .....                            | 28 |

*TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitakoen esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.*



**BAKIOKO UDALAK**  
diruz lagundutako aldizkaria



# QUINTA TORREren ganean Enrique Lópezegaz txur-txurka

*Orain dala hiru hilabete inguru "Quinta Torre" zaharretxea ireki zan; halan da ze, gure jakingura asetzeko, Enrique López Quinta Torrreko arduradunagaz berbetan egon gara eta berak argitu deuskuz zaharretxe zoragarri honen gorabehera guztiak.*

**TX:** Zelan sortu zan Bakion zaharretxea abian ipinteko asmoa?

**Enrique López:** Nik orain dala urte asko nerabilen buruan ideia hau, beste zaharretxe batzuk daukaguzalako, ez Euskal Herrian baina bai beste autonomia erkidego batzuetan, esaterako Valladoliden; eta, jakina, ni Erandiokoa izanda, Bizkaia oso ondo

**Ireki zanetik hiru hilabete baino ez dirala igaro kontuan hartuta, daborduko lekuen %50a beteta daukaguz.**

ezagutu behar izan neban etxe egokia topatzeko, ze, jakina, behar-beharrezkoa zan etxe horrek betetzea zaharretxe bat abian ipinteko eskatzen genduzan ezaugarriak. Horrenbestez, Bakion Quinta Torre topatu genduan, sano gustatu eta aurrera atara genduan proiektua. Dana dala, ideia aspaldikoa da eta 1997ko abendutik ia Bizkai osoan zehar ibili ginan, harik eta abenduan Quinta Torre erosi arte.

**TX:** Bakion eta eskualde osoan

zelango harrera euki dau egoitza mota honek?

**Enrique López:**

Ezin hobea; areago esango dot: guk hasikeran pentsatu baino harrera hobea euki dau. Egoiliarren eskariei jagokenez eta ireki zanetik hiru hilabete baino ez dirala igaro kontuan hartuta, daborduko lekuen %50a beteta daukagu.

**TX:** Gaur egunean zeintzuk dira beste zaharretxeen aldean Quinta Torrek eskaintzen dauazan zerbitzuak?

**Enrique López:** Egia esan, nik uste dot legezko arautegiaren arabera egiten dan edozein zaharretxek zerbitzu guztiak emoten dauazala. Indarrean dagoan azken urteko arautegia oso zorrotza da eta Quinta Torreren kasuan lez betetzen bada, mota guztietako zerbitzuak emon beharra dago.

**TX:** Zeintzuk dira zerbitzu horreek?

**Enrique López:** Jakina, funtsezkoa



dan zerbitzu medikoa emoteaz ganera, ostatua bera eta osasun baldintzak oso gogoan eukiten doguz; ganera, garbilekua, uleapaindegia, aholkularitza eta eleiz zerbitzua eskaintzen doguz, hau da, mota guztietako zerbitzuak emoten doguzala esan leiteke.

**Funtsezkoa dan zerbitzu medikoa emoteaz ganera, ostatua bera eta osasun baldintzak oso gogoan eukiten doguz, ganera, garbilekua, uleapaindegia, aholkularitza eta eleiz zerbitzua eskaintzen doguz.**

**Tx:** Beraz, ekipamenduari jagokonez, zaharretxea baino hotela dala esan leiteke?

**Enrique López:** Duda barik, arautegia bete eta "Quinta Torreren"

**«Abaleginak, zazpi.»**

kasuan lez Eusko Jaurlaritzak homologatutako egoitza izanez gero, mota guztietako zerbitzuak opetsi beharra dago, eta ezin gehiagorik emon, arautegia berez oso zorrotza dalako; eta, jakina, ezin da alde batera itzi zerbitzu bakar bape.

**Prezioari jagokonez, esan daiteke merkatuak eskaintzen dauazan prezioen azpitik gabiltzala, eta areago esango neuke: une honetan Foru Aldundiak dirulaguntzino modura emoten dauazan prezioen azpitik gagoz.**

**TX: Gai berari jarraituz, prezio eta kalitatearen ganeko erispideak kontuan hartuta, zein da Quinta Torrek oro har eskaintzen dauan zerbitzua?**

**Enrique López:** Prezioari jagokonez, esan daiteke merkatuak eskaintzen dauazan prezioen azpitik gabiltzala, eta areago esango neuke: une honetan Foru Aldundiak dirulaguntzino modura emoten dauazan prezioen azpitik gagoz. Izan be, Aldundiak eguneko 6.000 pezeta inguru emoten dauz eta gu ez gara prezio horretara ailegatzen. Hileroko kuota, beti be faktore bi kontuan hartuta, 150.000 mila

**Hemen, barbarako, badagoz ezkonbako bi eta hor ibiltzen dira maite kontuetan, eskuetan laztantxuak egiten, alkarri esaldi gozoak esaten eta holan.**

pezetatik 186.000 mila pezetara bitartekoa da egoiliar bakotzeko. Horrela bada, prezioa aldarazoten



daben faktoreak ondokoak dira: egoiliarraren egoera fisikoa eta gela banatua edo banakoa izatea. Gaur egun banako gela gehiago dago, baina tira....

**TX: Quinta Torrek obrak amaitu ziranetik hona, gitxi gorabehera hiru hilabete igaro dira; ondino obra txikiren bat egin edo zeozer barriztu behar da?**

**Enrique López:** Egia esan, aurretik ikusten dan ezkerreko alderdia apur bat gorabeheratsua da eta ondino-karren ez dago behar bezain egokিতuta. Era berean, orokorrean berdegunea be apur bat txukundu beharko litzateke, gehien bat estetikari begira.

**TX: Galdera informal batera pasatuz, kontatu eiguzu ea nagusiek euren artean maitasun konturik-edo dauken.**

**Enrique López:** Zorionez, horrelakoak egon badagoz zaharretxe honetan eta daukaguzan beste batzuetan be. Hemen, barbarako, badagoz ezkonbako bi eta hor ibiltzen dira maite kontuetan, eskuetan laztantxuak egiten, alkarri esaldi gozoak esaten eta holan.

**Plantilako behargin guzti-guztiak euskaldunak dira, dana dala, zoritxarrez, neu naz ez dakian bakararra, neu eta andrea.**

**TX: Azkenik, pentsatzen dot inguruko nagusi gehienak euskaldunak izango dirala; beraz, kontratazinoak egiteko sasoiak kontuan hartzen dozue hizkuntz erispidea? Hau da, behargin euskaldunak kontratatzen dozuez?**

**Enrique López:** Plantilako behargin guzti-guztiak euskaldunak dira; dana dala, zoritxarrez, neu naz ez dakian bakararra, neu eta andrea, baina, behintzat ardura hartu dogu gure seme-alabek ondo ikasi daien.

### Berbalapikoa

**erkidego:** komunitate.  
**harrera:** hartzeko modua.  
**igaro:** pasatu.  
**arautegi:** arauen multzoa.  
**funtsezko:** behar beharrezko.  
**opetsi:** eskaini.  
**aldarazo:** aldatu eragin.

***Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun,  
 TXIRRITXOLAK lekutxu hau eskainiko deutsu.***

**OHARRA:** Arlo honetara bialduko diran eritxiak izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emotezagun. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz. Beste aldetik, ez dogu iraingarritzat jo daiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izena edo irudiari kalté egin leikionik be.



## GURE HERRIA, BAKIO

Nik orri honetan idatziko ditut gauza batzuk gure herriari buruz. Nire ustez, herri hau oso ondo eгина da, txikia da baina oso polita, mendi asko ditu eta hondartza zoragarria ere badu, olatu askorekin. Oso eskola polita ere badu, nahiko berria eta oso ondo zainduta.

Egongo dira herri hau baino politagoak, baina askozitsuagoak ere. Nik, orain arte, herriko gauza onak bakarrik kontatu dizkizuet, baina gure herriak baditu nahiko gauza txar ere, eta pena da hau gertatzea. Adibidez, herri honek nahiko etxe eta txalet baditu, baina jende gutxi dago, udan bakarrik etorten direlako, hondartza aprobetxatzeko. Baina gauza berbera gertatzen da eskolarekin, zeren eskola hau ez da oso txikia eta gela asko daude soberan ikasleen faltagatik. Bi gela hutsik daude, baina horretaz aparte, ordenagailuak eta guzti daude. Gainera irakasle asko daude eta oso onak. Txikientzako kolunpioak ere badaude.

Beno, espero dut jende gehiago gure eskolara etortzea. Hori izan da nik idatzi nahi nuen gaia. Ea ahal dugun zeozer egin.

Yera Angulo



## USTEBAKOIA

*“Tenemos una llave de este coche, llámenos o pase por la policía municipal”*

Uda honetan ustebakoa izan dot hondartza inguruan. Herritar bateri esker Bakioko udaltzaingoak lagundu egin deust arazoa konpontzen. Halan ta guztiz ere, ea hurrengoan ustebakoa gertatzen ez bada, eta gertatu ezker, udaltzaingoaren oharra euskeraz datorren.

URGOITI



## SAN JOAN DOLOZAK-98

Besteek egindako beharra kanpotik kritikatuete erreza izaten dana badakit. Halan ta guztiz be, ez dot gura jaietan ikusi dodazan hutsune eta hutsegiteak zeintzuk izan diran esan barik itzi.

### 1.- Sanjolaz Egunean (abuztuaren 29an)

Ohi dan lez, egun honen goizeko eta arrastiko jaiak Gaztelugatxeko baseleizan eta Urizarreta baserriaren inguruetan egiten da, Bermeoko eta Bakioko udalek Gaztelugatxeren jaubetasun eta herri bion arteko auzotasuna ospatuten dabezala. Eskuko jai-egitarauan, ostera, ez dabe honen ganean txintik be aiatu. Eta, nire eritxi apalean, ezin leitekiez jaiei eurek daukezan alderdi historikoa eta balio etnografikoa ostendu. Eskuko egitaraua da beren-beregia horren aitamén laburtxua egiteko, batez be, gure artean kontu honetan ezjakintasuna zabalzabala danean.

Hain dan zabala ezjakintasun hori ze, egun beratan hainbat eta hainbat lagun joan ziran Zubiaurreko Probalekura Iparraldeko Herri Kirolak ikusten. Han, jakina, dana itxita egoan. Egitarauak ez ekarran-eta Iparraldeko Herri Kirolak Urizarretan izango ziranik.

### 2.- Sanjolaztxu Egunean (abuztuaren 30ean)

Galdakaoko Andra Mari taldearen dantzaldia eta abeslarien jarduna egiteko aukeratu zan ordua ez zan egokia izan. Uste dot honelango ekitaldiak arrasti-ilundian eratu behar dirala, herritarren erantzuna askoz hobea izaten dalako.

Arrastiko Kantu-Poteoa ez zan oso arrakastatsua izan. Han jai-eratzaleetarikorik ez zala agertuten ikusita, guk geuretara hasi eta egin genduan, eta kitu. Esan behar da be, han izan gintzazan guztiak udatiarrak izan gintzazala, herriko seme-alabarik ez. Zergaitik? Euskal Kantu-Poteoa egin genduan, egitarauan honen ganean murtik esan ez arren. Eta hau berau egitarauan zehaztu beharko zitzaiekan, nire eritxiz.

### 3.- Eneperi Egunean (abuztuaren 31an)

Aspaldion lez, Gau-Dantzaldia alperrik dagoana ikusi zan. Suzko Zezenaren ostean, han batutako gehien-gehiak etxera joaten dira-eta. Eta are alperrekoago EGAN lako talde entzutetsu eta ona egun horretan ekartea. Uste dot holango talderen bat aurreko beste egunen baten ekartea askoz be egokiagoa izango zala.

### 4.- Jai-egitaraua

Hizkuntzearen aldetik, bai euskeraz, bai erderaz okerrez beterik dago. Hau jagon behar bada, egitarauaren berbaurrea estilo eta idazkeraren aldetik negargarria da. Ezin leiteke edozer edozelan idatzi eta argitaratu, norbera baragarri lotu gura izan ez bada.

Iniaki MARTIARTU



## ETXEAN ARROTZ

Bernard Arripe Les Eaux Bonnes herriko baserriar bakanetariko bat da. Izan be, oso nekazari gitxi lotuten da Ossau haraneko (Biarno) mendialde haretan, ardi eta behi saldoen orde, turista multzoak jaubetu aspalditik jaubetu dira-eta zelai eta larrez. Halan ta guzti be, Bernard Arripe etxaldean lotu da eta nekazaritzaz bizitea aukeratu dau. Behiak badaukaz Bernard Arripek, eta bere baserriatik larrara hareek eroateko Gourette izena dauan oporlekutik igaro behar dau.

Bai, baina Gouretteko kaletatik igarokeran, Bernard Arriperen behiek zarata egiten dabe, turistaren batzuei bildur eragiten deusee eta, ara gehiago, bekorotzak izten dabez behearen ganean. Hori dala eta, Gouretten jaun ta jaube diran merkataria eta dendariak salaketa egin deutsoe Les Eaux Bonnesko alkateari. Eta harek -Pierre Hervek- arrazoa emon deutse, hau da, Bernard Arripe baserriarrak bazterrak nahastuten eta lohituten dauazala esan dau alkateak, eta eskatu deutso, oporretan dagozanei beraren behi saskel eta zaratatsuez alamenik ez emoteko.

Horrek sinistezina dirudi: herriko semeak burua makurtu behar dau kanpotarren atseginerako, etxeok arrotzari eskubidea emon beharra! Hori da, bada, turismoak dakarran errealtate gordina, nagusitasuna hartuten dauan lurraldeetan, behintzat. Adibide guztiek erakusten dabenez, turismoa baserrialde gune baten garatu bada, beti izan da baserriar koitaduen kalterako. Ez dago inon be bes-telango adibiderik. Beraz, Euskal Herriko heritarrek -asko abertzale izanda be- Euskal Herrian zabalduz doan turismo kontrolbakoa begi onez ikustez hausnarketea egin beharko leukee.

Eta ulertu daiela behingoz, abertzale gehienek zergaitik ez dogun bape gogoko turismo menperatzaile edo kontrolbako dalako hori. Gure aukerak egiteko eta gure lehentasunak ezarteko eskumenik eta ahalmenik ez doguzan artean, menperatzerik ez daitekelako izan. Ulertuten ez badeuskue, jo daiela Bernard Arriperengana.

Allande SOKARROS (Xiberoa)

### Berbalapikoa

**bakan=** urri, gitxi.  
**nekazari=** baserriar, lugin.  
**Biarno=** Bearn. (Euskal Herria izandako lurraldea)  
**saldo=** talde, mordo, aldra.  
**zelai=** pentze, bedartza, landa.  
**bazterrak nahastu=** nahaste-borrasteak sortu, inguruak nahastatu.  
**alamena emon=** gogait eragin, enbarazu egin, gogaitu.  
**garatu=** hazi, zabaldu, hedatu.  
**hausnarketa=** gogoeta, gogotan erabiltea, erreflexino.  
**behingoz=** behin eta betiko.  
**menperatzaile=** zapaltzaile, oinperatzaile, azpiratzaile.  
**eskumen=** eskubide, konpetentzia.

Abuztuaren 23an Portuondoko zurtzuridian eratutako Nekazaritza Azokan egindako itaunketea dozu hurrengo hau.

## Zertan uste dozu etorri dala jendea bertora, erosten ala probetan? Uste dozu jendea hamaiketakoa egiten etorri dala?



**MARI ANGELES ZABALA**

*Danetarik egon da. Gehienek lehenengo probatu egiten dabe, eta gero erosi. Ez da egoten horrenbeste janari hamaiketakoa egiteko. Beste leku batzuetan, bai. Hamaiketakoa edo bazkaria be egiten dabe batzuk. Bertan jan eta gero etxera.*



**MILLARAY LETELIER**

*Probetan. Ni, esate baterako, banator gauzak probetan. Baina orain harantza noa, zeozer erosten. Ez dakit zer erosiko dodan, gaztaia edo. Ez dot amaitu, oraindino, hamaiketakoa jaten. Nire ustez, ez da lotsagarria ezer ez erostea. Lehenengo probetan dot eta kalitate onekoa bada, erosi.*



**JOSE DOMINGO RENTERIA**

*Danetarik egiten dabe. Bakotxak egiten dauana da: bere produktuak erakutsi eta gero saldu. Leku batzuetan, probatu egiten dabe gehiago, erosi baino. Zuek esan dozuena, hemen egiten dana, batez be, hamaiketakoa da eta gero, beharbada, ezer ez erosi.*



**JOSE MENTXAKATORRE**

*Ba, gauza biak. Betikoak etorten dira, inoren kontura, narru gogorrez, jaten. Baina, jende asko erosten eta ikusten be etorten da.*



**IDOIA AGIRRE**

*Ba, danetarik dagoala uste dot, ezta? Probetan eta edaten. Ni oraintxe etorri naz eta ez dakit jendea hamaiketakoa egiten etorri dan. Bueltatxu bat baino ez dot egin. Baina hor nonor erosten ikusi dot.*



**IKER URRESTI**

*Erosten. Oraindino ez dot ezer probatu ez eta erosi be. Baina, beharbada, jendea probetan etorten da. Eta erostea merezi dauala pentsetan badabe, erosi egiten dabe. Beharbada, jende asko hamaiketakoa egiten etorri da.*

**ANARTZ-HAITZ-ZIORTZA-LARRAITZ**

# «AMERIKETATIK» euskal trainerua




XVIII. gizaldian bokartak arrantzan egiteko Hondarribia aldean erabilten ziran 10 arraunlaridun traineruen lakoa da New Yorketik etorritako traineru hau. Esan behar da, orduko arrantzaleak itsas-aldetik asagoen 4 edo 5 miliatara egiten ebela arrantzan holango traine-ruetan, itsaso zabalean inoiz ibili barik. Garagarrilaren 30ean etorri zan Bakiora AMERIKETATIK izeneko traineru hori eta hurrengo egunera arte haretzan egon zan ikusgai. Muskiz eta Baionaren arteko euskal itsas-bidea 28 egunetan eta 300 arraunlarien eskuhartzaz egin zan. Asmoa izan da, euskaldunen itsas-historia euskaldunen artean eta

munduan zehar ezagutu eragitea. Izan be, leba haundikoa izan da euskaldunen itsas-historia, gure artean sano ezezaguna dan arren. AMERIKETATIK trainerua Xabier Agotek egin eban Estatu Batuetako Maine urian. Traineru hori egiteko dirua, ostera, Ameriketan 14 herrialdetako euskaldunek emon dabe. Guztiaren ardurea **Society of Basque Studies** dalako erakundearen lehendakaria dan Jose Ramon Zengotitabengoak izan dau. Datozan 10 urteotan Europar zehar ibiliko da eta gero itsas-museoren batera eroango dabe, han betiko lotu daiten.



## UDALEKU IREKIA




Garagarrilaren 20tik 30era UDALEKU IREKIA izan genduan Bakion. Bederatzi egunotan eskolako oktogonoan batu eta hara-hona ibili dira 21 ume. Begirale biren laguntzaz hainbat ekintza burutu dabez: jokoak, kirola, endi urtekerak, tailerrak eta abar.



# IPUIN KONTALARIA



Garagarrilaren 28an eta abuztuaren 25ean, IPUIN KONTALARIA izan genduan Kultur Etxeko Liburutegian. Arratsalde hareetan umeak eta gurasoak batu ziran, kontuak, asmakizunak eta zeresan barregarriak entzutekotan.



## BAKIOKO KULTUR ETXEKO IKASTAROAK

URRIA  
ZEMENDIA  
ABENDUA

| IKASTAROA     | EGUNA                | 🕒           | \$    |  |
|---------------|----------------------|-------------|-------|--|
| ESKU-LANAK I  | martitzena           | 10:30-13:00 | 5.500 | <b>Izena emon:</b> irailaren 14tik 23ra arte,<br>Kultur Etxean 17:00etatik 21:00etara.<br>Ikastaroak urriaren 5etik aurrera hasiko dira.<br>Ordainak hiru hilabetekoak dira. |
| ESKU-LANAK II | eguna                | 17:00-19:30 | 5.500 |  |
| PINTURA       | martitzena           | 17:30-20:30 | 5.500 |  |
| SALOI-DANTZAK | astelehena           | 19:15-21:15 | 5.500 |  |
| YOGA          | astelehena+eguztena  | 19:00-20:00 | 4.500 |  |
| AEROBIKA I    | astelehena+eguztena  | 20:00-21:00 | 4.500 |  |
| AEROBIKA II   | martitzena+eguna     | 20:00-21:00 | 4.500 |  |
| GIMNASIA      | astele.+marti.+eguna | 9:30-11:00  | 4.500 |  |

*Bakioko Kultur Etxea*

Taberna, denda, tailer zein beste edozeinentzako iragarki lekua izango da hau.

# BERTSO AFARIA UDAN


*Abuztuaren 13an urteko bigarren Bertso Afaria egin genduan TXOBERNE tabernan. Gure asmoa herritar eta udatiar euskaldunen arteko hartuemonak euskeraz sortu edota indartutea izan da. Datozan udetan be asmo horregaz aurrera egitekotan gagoz. Oraingoan, Jon Maia eta Jokin Sorozabal bertsolari gipuzkoarrek lagundu euskuen zeregin horretan. Makina bat adarjote egin eta barre eragin ebezan bertsolariok. Entzule izan gintzazanok pozik be pozik lotu gintzazan eurek egindako bertso saioagaz. Jana eta edana ugari eta ona. Horretan TXOBERNEkoek egindako ahalegina eskertutekoa izan da, benetan. Esan behar be, han egon ziran gehienak gazteak izan ziralda, helduagoren bat gehiago etorriko zalakoan egon gintzazan arren. Denbora osoan euskeraz ibili gintzazan danok. Aurrekoetan ez lez, ez genduan Bertso Afarian bape erderarik entzun!*

## Afaria dala eta...

### JOKIN SOROZABAL

Artabururik ba ote dagon ikusi beharko genduke, herri honetan kosta aldean jendea pilatzen dute. Gaurkoan ere horretan oso seguru egon gintezeke, kostan gaudela sines dezagun arrain zopa eman digute.

(zortziko nagusia)



### JON MAIA

Digestioa izan liteke bertsoei esker arina, zuen herrian famatua da hondartza ta txakolina. Baina badago herritar franko elkar biltzeko adina. Udaran ere badaukazue euskeraz non hitzegina.

(zortziko nagusia)

## San Joanen inguruko gorabeherak...



### JON MAIA

Pozik ibiltzen dira, tralari tralara, gaba alde horretan mutilen festara. Ligatu ta sasoirik piskat baldin bada, batzuk joaten dira San Joango ermitara.

(zortziko txikia)



### JOKIN SOROZABAL

San Joango ermita hortan egiten da plana, hori da azken aldian nik entzun dudana. Zertara joaten ote dira beregana? Santuari eskatzera lige eder bana.

(zortziko txikia)

«Guzurra eta herrena arin harrapetan dira.»

## Bakio ta euskerea...

**JON MAIA**

Baina bere postuari  
ezin egin uko,  
horretarako badu  
makina bat truko.  
Herri sarreran jarri  
behar da lekuko;  
ta erderaz hitz egiten  
somatu orduko,  
euskera ez dakitenak  
ez dira sartuko.  
(hamarreko txikia)



**JOKIN SOROZABAL**

Hori ez litzateke  
oso lorpen gutxi,  
baina hainbeste kemen  
nola erakutsi.  
Beste bide batetik  
liteke hobetsi:  
euskera ez dakiena  
honuntza iritsi  
eta ikasi arte  
irteten ez utzi.  
(hamarreko txikia)

## Afariko adarjoteak...

**JON MAIA**

Begira, adibidez,  
neska poxpolina,  
neska poxpolina,  
hortxe daukazu Unai  
ingeniero fina,  
ingeniero fina.  
(koplak)



**JOKIN SOROZABAL**

Ingenieroa bada  
askoz hobea,  
askoz hobea,  
baina abuztu aldean  
oporretan dago,  
oporretan dago.  
(koplak)

# Bakioko XII. Musika ASTEA GOGOAN



Zoritxarrez, daborduko uda joan jaku, beragaz batera, aro ona, oporrak, patxadaz ibilteko sasoi eta hareatzan zein alboko herrietako jaietan gozatzeko aukera be. Dana dala, gutarik askok ondinarren gogoan daukaguz udan izandako ekitaldi batzuk, kasu baterako, Bakion hain entzutetsua dan Musika Astea. Hori dala eta, pentsatu dogu egokia izan leitekela kultur ekitaldi honetan par-

te hartu daben taldeak gogora ekarte eta, hori jadesteko, horren barri grafikoa emoten daben argazkiak argitaratzea. Beraz, arti-kulu honetan ikusi ahal izango dozuez «Moskuko Korda Laukotearen» emanaldiaren argazkia, bai eta «Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoak» emon-dakoarena be.



# MENDIKO IBILALDIAK I eta II EUSKERAZ

Jakingo dozuenez, uda honetan Euskera Batzordeak mendi ibilaldi bi (I. eta II.) antolatu dauz. Gure helburua, kirolagaz batera, euskeraz egitea izan da eta nahiko talde politak batu izan gara horretarako. Bide batez, ganera, Bakioko mendi, inguru, leku eta baserri batzuen izenak ikasteko aukera izan dogu. Eguraldia be sano ona egin deusku eta aro ederrean ibili izan gara mendian. Horren adierazle hor daukazuez egun hareetako argazki batzuk.

Tontorrean dagozala eta, poz-pozik dagoz, antza.



Burgoan, 1998ko garagarrilean



Jatan, 1998ko irailean

## BAKIOKO NAZINOARTEKO JAIALDIA - garagarriaren 30ean



Lehenago uteetan lez, aurtengo San Inazio bezperan egon zen Folklore Jaialdian lurralde ezberdinetako kulturak ikusteko aukera euki genuen. Albania eta Argentinako taldeak izan genituen ikusgai, hain zuzen ere.

Hasiera batean, Togoko talde bat etortzekoa zen, baina arazo administratiboak zituela-eta, azkenean, ezinezkoa gertatu zitzaion. Eguraldi txarra dela-eta, leku aldaketa egon arren, ikuslegoak harrera ona erakutsi zuen bi taldeen kultura-erakusketaren aurrean.

## IRAILAREN 29an SAN MIGEL ZUMETZAGAN

Urtero-urtero Zumetzagako XI. edo XII. gizaldiko baseleiza erromanikoaren inguruan ospatuten da Mikel Deunari egiten jakon jai. Zumetzaga herriz Mungia izan arren, Bakio zein Jatabe, Markaida edo Larrauriko herritarrek hara joateko jokera handi eta sakona izan dabe beti. Sentimenduz edo bihotzez jai hori ondoen bizi izan dabenak eurak izan diralako. Aurton, Mungialdeko AEK eta Bakioko Turismo Bulegoak egitarau apaltxua eratu dabe jaiari zeozertxu gehitutekotan: sokatirea eguerdiatean eta jota txapelketea arrastian.

Kristautasuna heldu orduko, ziur antzean, euskal jainkoren baten edo batzuen aldeko ospakizunak egingo ziran bertan, Jata mendi bizkarrean. Ostean eta ehundaka urtetan, Jaun Done Mikel eguneko euskal erromerieak bizi-bizirik iraun izan dau orain dala urte gitxira arte. Aspaldion baina, bestelango giroa jaubetu da egun horretan. Gero eta inguruetako herritar gitxiago agertuten da han, eta jai horrek izan dauan nortasuna itzelean galduz joan da. Bizi be, txosna zaratatsuen kulturari bizi gara eta!



*EUSKARARI BAI!*

# HAUEK ERE BAI...

|  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|
| <br>MONTSE GONZALEZ<br><i>Langaburu</i>   | <br>GORKA ODRIOZOLA<br><i>Lidaleko iragazlea</i>          | <br>PATXI EUGI<br><i>Poliziano</i>                                  | <br>JOSELU MIRANDA<br><i>Irachiki esatario</i> | <br>XABIER EUSKITZE<br><i>Bortolalar eta kizortario</i> |
| <br>JULEN GARCIA<br><i>Irakaslea</i>      | <br>IXIAR OREA<br><i>Abelezar eta telebista aurkezlea</i> | <br>JOSE ELORRIETA<br><i>ELA (Euzko Lehenengo) idazkari nagusia</i> | <br>AITOR APRAIZ<br><i>Lidaleko iragazlea</i>  | <br>FERMIN MUGURUZA<br><i>Musikaria</i>                 |
| <br>TXETXU UGALDE<br><i>Kazetaria</i>    | <br>JON LOPATEGI<br><i>Dentista</i>                      | <br>JOSE MARIA ARRATE<br><i>Elhizkideko presidentea</i>            | <br>ARANTZA LARREGI<br><i>Bortzfortzaila</i>  | <br>MIKEL LASKURAIN<br><i>Aktoia</i>                   |
| <br>BENITO LERTXUNDI<br><i>Abelezar</i> | <br>ALAIN MICHEL<br><i>Kinor</i>                        | <i>...esan zeuk ere</i>  |  |  |

**BAI EUSKARARI!**

*izena eman euskaltegi eta barnetegietan!*

**AEK**

**URIBE - BUTROEKO AEK - KINTTOPEKO EUSKALTEGIA BAKIOKO AEK**

**BERTEIZ 8, 1.a MUNGIA tel: 946 744 316 GATIKAKO AEK**

**AEKren eskutik EUSKERA ikastaroak Bakion**

EGA, EUSKALDUNTZEA, ALFABETATZEA, PL1, PL2...


Informazioa eta matrikulatzea: BAKIOKO KULTUR ETXEAN

Tel. 94 619 33 69 (arratsaldez)

edo KINTTOPEKO AEKn (Mungia): Tel. 94 615 43 16 (9:30 - 13:30 // 4:30 - 8:30)

# SAN JOAN DOLOZAK -98

Antza, amen danok ligatu deurie!!



Hau abiadie, hau!



Gonbidatuko gozuez hurrengorako?



Izarren bila?



Gosiek hilda, ala?



Bakion beti jaten:  
arroza, tortilie...



Ur-gudarako prest gagoz!  
Nor ausartuten da?



Usaina honagino  
ailegatuten da. Mmmmm!!!



Ez dago jakiterik, lehenengoa ala azkena dan.

**ZORITXARREZ, DATORREN  
URTERA ARTE ITXARON  
BEHAR IZANGO DOGU!!**

**Zeintzuk dira Bakioko jaietako  
egun guztien izenak?**



**Donieneak (*doñének*) edo  
Sanjolasak (*sandxolásak*)**

**San Agustin (*san agústin*)** - abuztuaren 28an.

**San Jolas Eguna (*san dxolás egúne*)** - abuztuaren 29an.

**San Jolastxu Eguna (*san dxolásxú egúne*)** - abuztuaren 30ean.

**Eneperi Eguna (*enepéri egúne*)** - abuztuaren 31an.





# ZAHARRAK BARRI

Bai, aldea argazki bien artean, gero! Jakina dagoana, eta hemen argituko dot, ba. Goiko argazkikoa "GOIKOLEA" dogu, baina ez gaur ezagututen doguna, errekarren beste aldean dagoana baino. Badaukaz, edo hobeto, baeukazan hamaikatxu urte etxe harek. Orain 300 bat urte burdinola lez aurkitu geinke agirietan, eta hortik beraren izena: **GOIKO OLEA**. Urte batzuk geroago, XVIII. gizalditik XIX. gizaldiko amaierara errota izan zan, eta holantxe ezagutu izango zenduen gitxi batzuk. Orain 100 urte, argi-indarra zentrala be izan zan, "IRURAK BAT" izenekoa. Plentziagino argi-indarra emoten eban. Iberduerok, baina, orain dala 50 bat urte saldu egin eban, haren menpean egon zan eta. Bizkaian

argi-indarra emoile aurrelari izan zan zentral ha bertan behera itzi eben, zahartuta egoala edo. Gero, Foru Aldundiak erosi eban eta orain dala 25 urte inguru, bide nagusia zabaldukeran, bota egin eben, beheko argazkian ikusi geinken txabola hori eraiki ebela. Oraindinokarren be, antxineko eta jatorrizko GOIKOLEAko suteko baldosak, horma haretan iminita, ikusi leitekez. Hurreratu eta ikusi zuok zeuok!

ANARTZ ORMAZA



*«Errementariaren etxean, zotza burduntzi.»*

# ITXAS-ALDEren BARRIAK

Guretzat urteko ekintzarik nagusiena Andra Mari egunekoa, abuztuaren 15ekoa, izaten da. Betiko lez, goizean eta Meza Nagusia amaitu ostean, taldeko neska-mutilik gazteenek dantza saio laburtxua eskaini eben eleiz-aurrean. Aurton, beste batzuen artean, Xiberoko dantzak egin genduzan lehenengoz. Eguraldi on-ona izan genduan, eta giro alai eta koloretsua lortu genduan Eleizaldeko plaza-txuan.

Gauean, BASERRIAN" deritxon ikuskizuna aurkeztu genduan, dantzari nagusiakaz. Oraingo honetan, txikienetariko batzuk be agertu ziran, mutilak batez be, "Abaltzizketako Txantxoak" dantzatzuz. Hainbat gauza barri



izan ziran ekitaldian: irudiak ("Labo-rantzak") saioari hasikerea emoteko, orain arte eskaini bako koreografiak ("Sagar Dantza", "Gaitarako Balsa", "Uztai Haundi"), dantza barriak ("Azeri Dantza",

"Abaltzizketako Txantxoak"), jantzi barriak eta agertoki bi, baten orde. Honeekaz guztioneekaz erritmo bizkordun ekitaldi ikusgarria eta polita eskaini genduala uste dogu, eta askok esan euskuenetik, dantza gehiago ikusteko gogoaz lotu ziran amaitu-keran.

Dana dala, hemen ez da gure lana amaitu, eta iraileko (Larrauriko jaietan) eta zemendiko (Busturialdeko Dantzari Nagusien Jaietan) ekitaldi garrantzitsuak egin ostean, Argentinara eroango dogun ikuskizuna prestatzen hasi beharko dogu.

**ITXAS-ALDE**  
**Euskal Kultura Taldea**

## PELOTAKAN

Aprobetxatuko dugu, berriro ere, TXIRRITXOLAK ematen digun lekutxu hau udaldia zelan pasa dugun kontatzeko.

Ez dugu oporrik hartu, ez. Udako Paleta Txapelketan sartu ginen buru-belarri, bai antolamenduan zein jokoan. Antolamendu arloan zoriondu behar ditugu, lerro hauek erabiliz, Jesus (Landabasokoa izenekoa) ta Iñaki Mintegi, uztailaren 24tik abuztuko 29ra arte eguneroko lana euren kontrolpean eroategatik.

Jokoari dagokionez, zoriontza bikoitza egin behar dugu. Aurten, Bakiok bikote bi sartu ditu 2. mailako semifinaletan, Egoitz-Igor ta J.K.-Jagoba, azken hau txapeldun izatera heldu delarik. Honez gain, esan beharra dago, final biak interes handikoak izan zirela.

Alde batetik, Bakiotarren partiduan, gure mutilek, partidu osoan galtzen joan arren, 34ra berdintzea lotu zuten, segidan 35.a eginez. Bestetik, 1. mailakoa kanpotarren artean jokatu zen: Santiago-Tito Fernando-Gaubekaren aurka. Partidu hau sinestezin bihurtu zen. Santiago eta Tito 2-17 galtzen joan arren, partiduari buelta ematea (27-25) lortu zuten. Handik aurrera, berdinketan eta berdinketa

apurtzen ibili ziren, bakoitzak bere abilezia edo trebetasuna erakutsiz. Azkenean, Fernando eta Gaubekak lortu zuten buru gainean txapela jartzea.

Hemen ikusi nahi ditugu ba, apurka-apurka, herriko umeak, nahiz eta lantzean bat hasita egon. Hau da Ibon Elorriagaren kasua. Arazo bat sortu zitzaigun bikote batean eta birritan pentsatu barik, baietza eman zigun. Agerrek atzeko koadroetan

lagundurik, markagailuan 27 tanto jartzea lortu zituzten. Beraz, adibide honegaz amaitu nahi ditugu. Etortzeko gogoagaz dauden neska-mutilei frontoira etor daitezela esan nahi diegu, eurek nahi duten kirol motan jolastera etorri ere: eskupilotan, paletan, frontenisian...

**ALAITASUNA PILOTA TALDEA**



# Bakioko Abesbatzaren albisteak

Ikasturte barri bateri emon geuntson hasikera indarbarriturik eta ilusioz beterik. Urtero legez, egitasmoak zehazteko sasoi heldu jakun. Proposamenak eta ideiak metatuz joan ziran, eta horrek ordenan jartea eta antolatzea izan zan gure lehenengo eginkizunetariko bat. Dana dala, konpromiso batzuk gane-ganean genduzan. Esate baterako, urriaren 11n, Euskeraren Jaian kantatzeko berbea emon genduan. Aurten ganera, antolatzaileek halan eskatuta eta abade jaunaren oneritxiagaz, Meza Nagusian kantatu genduan egun haretan. Hiru-lau ezkontza abendura arteko plangintzan sartuta be badoguz. Lana badogu, beraz.

TXIRRITXOLAK eskaintzen deuskun txokotxu hau aprobetxatuko dogu, oraingoan be, ohar pare bat zabaltzeko:

- Igazko Musika Astean zuzenean grabatu genduan CDa oraindino salgai dago (bai Turismo Bulegoan edo baita geuri eskatuta be). Gogoratuko dozuenez, Anton Larrauriren "Bestelako Gudariak" lan zoragarria Mungiako Abesbatzagan batera kantatu genduala ekitaldi haretan.

- Entsaioak bariku (ilundiko 8retatik 10etara arte) eta zapatuetan (arrastiko 6.30etatik 8retara arte) Kultur Etxeko aretoan egiten doguz. **Ateak zabalik dozuez !!**

**BAKIOKO ABESBATZA**



## Urkitza eskolako barriak



Ikasturte berria irekita dago jadanik eta oporrak igaro ostean, indar berriekin aurkitzen gara eskolako arduretan hasteko.

Aurten, hamabi ume berri ditugu gure artean eta dakigunez, oso ondo moldatzen dira eskolan.

Urkitza, txikia izanik, ez da atzean geratzen. Udal eta gurasoen lanari esker, ordenagailu bi erostea lortu dugu. Gauzarik errezenak ikasiz, kurtso honetan, informatikaren munduan sartzea da gure asmoa.

Kirol aldetik, esku-pilotarekin jarraituko dugu Pilota Elkartearen laguntzaz. Lerro hauen bidez dei bat egiten diegu neskeei pilota jokoan parte har dezaten. Oraingo honetan, Frontenis ere ahal duzue aukeratu eta lehiaketan parte hartu, nahi baldin baduzue. Iaz ausart bi jo ta ke ibili ziren eta mutil bat baino gehiagori irabazi zieten. Beraz, kirol honetan jardun nahi duzenok pilotalekua zabalik duzue.

Beste aldetik, jakinarazi nahi dizuegu, hirugarren urtea dela jantokia zabalik duguna, baina aurten beste jagole batekin. Ume txikiak ugaritu direnez, pertsona biren beharrezana ikusi dugu. Moldaketa honek garestitu egiten du jantokiarena, baina denon laguntzaz (Udala / gurasoak) aurrera jarraituko dugu.

Holan izan beharko du, **UMEAK HERRIAN** eta ezer falta barik egotea nahi baldin badugu. Besterik ez.

**Laister arte.**

**URKITZAKO GURASO ELKARTEA**

### IDAZ LEHIAKETARAKO OINARRIAK-98

- 1.- Gaia edozein izan leiteke; ipuin, elebarri labur, kontakizun,...erara aurkeztuta.
- 2.- Edozeinek hartu leike esku; bertoko zein erbestekoa izan.
- 3.- 15 urtetik aurrera lanak idazkinaz idatzita aurkeztu beharko dira.
- 4.- Euskeraz aurkeztuko dira idazlanak, batuaz zein bizkaieraz.
- 5.- Idazlanaren luzerea gehien sei orrialdekoa eta gutxienez orri bikoa izango da.
- 6.- Idazlanak aurkeztuteko epea abenduaren 11n amaituko da. Idazlan gutunazal handi baten barruan sartuta, berorren kanpo aldean "Bakioko X. Idazlan Lehiaketa" eta adin taldea adierazo behar dira. Beste gutunazal txikiago baten idazlearen zehaztasunak agertu behar dira: izen-abizenak, jaiotza eguna, zuzenbidea eta telefono zenbakia. Gutunazal handia, txikia barruan sartuta daukala, aurkeztu behar da.
- 7.- Euskera Batzorde honen eskuetan lotuten dira zuzenketearen ardura, azken erabagia eta sarien banaketea. Baita idazlanak argitaratutea be.

**Bakioko Euskera Batzordea**

#### ADIN TALDEAK

- 1.- 7 urterik 10 urtera
- 2.- 11 urterik 14 urtera
- 3.- 15 urterik 18 urtera
- 4.- 19 urterik aurrera

#### OHARRA

Lanak Kultur Etxean itzi behar dira, abenduaren 11n beluen. Sariak abenduaren 24an, Gabon gauan, pelotalekuan emongo dira.



# TXINDORRA

Euskerearen aldeko ahalegin sendoa txalotuteko sortu dogu arlo hau. Udalak euskerearen aldekoan hartutako asmo-erabagiari aitagarri deritxogu. Euskerea Normalduteko Plangintzea abian dago daborduko herrian. Bai barrura begira, bai kanpora begira. Honex esan gura dau, euskerea normal-normal egiten hasi dirala udaletxeko beharginak euren artean, egin behar dabezan paperetan, beharretan eta hara joaten garanokaz be. Hor beharginen borondate ona eta ahalegina txalogarri eta eskertutekoak dira. Udalaren aurrerantzako oinkada hori Euskera Zerbitzua sortukeran be igarri-igarrian dago. Gure kaleetan dagoan seinalizazioari begitutea baino ez dago. Dan-dana euskeraz. Baita aitatu beharrekoa da be, Udalak AEKgaz zabaldu dauan alkarlanaren ibilbide barria. Pozgarria da, benetan. HOR EKIN!



*Berton zure iragarkia argitaratu  
abal izango dozu.*

# Birigarroa

Uda sasoia izaten da urteko aldirik biziena. Han-hor-hemenka, perretxikoak lez, agertuten dira zenbatgurako ekintza. Ekintzon barri emoteko hormirudiak edo kartelak eskegiten dira. Baztarrak ikusi ahal izan dira, aurten be, edonon gure herrian. Sarritan, norberak pentsetan dau, kartelaren kartelaz, ea inork kartelok irakurten dauazan. Gatxa da baietz esatea! Guk geuk, TXIRRITXOLAKOOK, behintzat, bai. Irakurri ezeze, euskereari emoten jakozan lekua eta garrantzia aztertu be egiten doguz. Halan bada, esan behar dogu urtean-urtean agertuten dirala euskereari jaramon handirik egiten ez deutsoen kartelak. Horregaz bape ez gatoz bat. Gure herria, Bakio, euskalduna da, lehenengo ta behin. Batzuk ez dabe oraindikarren ikasi herri euskaldunean bizi dirana, aurki. Euskerearenganako euren jokaera okerra agirian itzi gura dogu hemengo honetan, ez, baina, aurrerantzean jokaera hori arteztu daiela eskatu barik.

## Hostería del Señorío de Bizkaia (Bakio)

Gran concierto de **guitarra** y **violoncello** amenizado por:

Agustín Maruri  
Y  
Michael Kevin Jones

Agustín Maruri

Michael Kevin Jones

Este excelente guitarrista ha ofrecido numerosos y exitosos conciertos a lo largo y ancho de los cinco continentes. Su amplia discografía se distribuye en todo el mundo y abarca tanto programas de solista como de música de cámara. Representó a España en Atenas durante el concierto celebrado por la Radio Televisión Griega en 1989. Su trabajo de redescubrimiento de la obra Adam Falckenhagen le ha valido el reconocimiento de la academia Europea de Yusele, siendo premiado con uno de los cinco primeros becas Jaques Delors en su edición de 1996.

Violoncelista Británico realizó sus estudios en Dartington y posteriormente en el prestigioso Royal College of Music en Londres. En 1994 ganó una beca del Gobierno Alemán para ampliar sus estudios en Dusseldorf con el profesor Johannes Gorka. Siendo todavía estudiante fue solista de la "Academia Alemana de Música de Cámara". Como solista ha actuado en diversos lugares del mundo ofreciendo recitales en salas de la categoría de Lincoln Center de Nueva York, Gran Teatro de La Habana, Konzerzgebouw de Amsterdam, etc.

### Programa:

Leonard Von Call (1779-1815)  
Serenade op.39  
Adagio con Moto  
Menuetto - Trio  
Romance  
Tema con Variaciones  
Polonesa

Erik Marchelli  
"Don Quixote y Dulcinea"  
Obra dedicada al dúo Jones-Maruri  
Estreno

Horario: 23:30 en la terraza del Hotel  
(Entrada libre)  
Días 14 y 15 de Agosto

Tel. 94-6194725

**EL CORREO** **XIV OPEN KIROLETA DE TENIS**  
**BAKIOKO UDALETXKO TENIS TXAPELAKETA**  
**TROFEO AYUNTAMIENTO DE BAKIO**

Del 26 de Julio al 2 de Agosto  
1998

INSCRIPCIONES: Club Kiroleta (94) 619 40 40  
Fecha tope: 24 Julio 11 horas.  
Cuota: 1.500 Ptas.

LICENCIA FEDERATIVA: Obligatoria

COMITE ORGANIZADOR: Miguel Urbizu  
Igor Del Busto (Jefe Arbitros)  
Jose Miguel Villanueva (Adjunto)

COMITE DE HONOR: Jose Domingo Renteria (Alcalde de Bakio)  
Santiago Gallastegi (Pse. Fed. Vasca de Tenis)  
Ramón Garrote (Pse. Club Kiroleta)

ENTRADA LIBRE

COLABORAN • LAGUNTZAILEAK

|           |               |           |
|-----------|---------------|-----------|
| REGUI     | UFEZU         | CERVANTES |
| BERATERPE | la Caixa      | bil-bu    |
| blanc     | Densito Color |           |

**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

DEL 13 - 17 SEPTIEMBRE

## VIAJE A LA EXPO-LISBOA

ADEMAS.....

LISBOA-SINTRA-ESTORIL  
CASCAIS-ELVAS Y ALOJAMIENTO  
EN LA PENINSULA DE TROIA.

INFORMACION Y RESERVAS  
BAKIOKO TURISMO BULEGOA  
(94) 619 33 95

«Entzun ta gor.»

# BAKIOKO EUSKEREAA-III

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

**Oharra:** Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi behar dan: “ahuntz-haizea”
- Bakion zelan esaten dan: “(euntzáixie)”

Haizeetan hainbat izen agertu dira Bakion. Bakion non bizi, halango edo bestelango haizeak eta euron izenak agertuten jakuz. Amen, bada, sarrien eta gehien erabilten diran haize-izenok:


**KANPO-HAIZEA** (*kanpoáixie*): Edo **ITSASOKO HAIZEA** (*itxósoko aixie*), edo **BEHEKO HAIZEA** (*bekoáixie*). Iparretik joten dau. Hotza, gogorra eta euritsua izaten da.

**IPARRA** (*ipérra*): Edo **SAN JOAN HAIZEA** (*San Dxoán aixie*), edo **JITANO-HAIZEA** (*Jítano-aixie*), edo **SANJOALDEKO HAIZEA** (*Sandxoáldeko aixie*), edo **GOIKO HAIZEA** (*goikoáixie*), edo **AHUNTZERRIKO HAIZEA** (*Euntzérriko aixie*). Ipar-sortaldetik joten dau. Ez da gogorra ta euritsua izaten, baina, bai, hotza ta legorra. Dagoanik eta haizerik hotzena da, edurra ekarten dau, neguan batez be. Haize honeri, hotz-hotza danean, **AHUNTZAK HILIKO HAIZEA** (*éuntzek illiko aixie*) edo **AHUNTZ-HAIZEA** (*euntzáixie*) esaten jako.

**MAÑU-HAIZEA** (*Mañú-aixie*): Edo **MAÑUKO HAIZEA** (*Mañúko aixie*) Sortaldetik joten dau eta ez da epela izaten.

**TRIBIZ-HAIZEA** (*Tribís-aixie*): Edo **TRIBIZKO HAIZEA** (*Tribísko aixie*). Hego-sortaldetik joten dau. Epela izaten da eta euri gitxi ekarten dau.

**HERRIKO HAIZEA** (*erriko aixie*): Edo **ANDRA-HAIZEA** (*anrdáixie*), edo **EMBRA-HAIZEA** (*embráixie*). Hegotik joten dau. Sargoritsu eta legorra izaten da udan. Neguan edurra urtuten dau.



**JATA-HAIZEA** (*Dxatá-aixié*): Edo **JATAKO HAIZEA** (*Dxatáko aixié*), edo **ITURRIAGA ALDEKO HAIZEA** (*Itxúrria áldeko aixié*). Hego-sartaldetik jotzen dau. Ez da euri-euritsua izaten, baina bai gogorra ta epela.

**MENDEBALA** (*mendabála, mendebála*): Sartaldetik jotzen dau. Sano gogor jotzen dau. Epeltxua eta euritsua izaten da, zaldiganeakoak ekarten dauz.

**GAILEGO-HAIZEA** (*gallégu-aixié*): Edo **USATEGIKO HAIZEA** (*Úsateiko aixié*). Ipar-sartaldetik jotzen dau. Gogor-gogorra eta euri-euritsua izaten da. Ez da epela izaten. Itsaso handia eta afontua ekarten dauz.



Iniaki MARTIARTU

## ESAISTAK LORAK NON DAGOZAN

Esaistak lorak non dagozan. Non lotu dozak?

Esaistak lorak non dagozan. Zer jazo dok?

Esaistak lorak non dagozan...

Neskatoek arin bai arin batu joezan.

Noiz ulertuko ete joaguk?

Noiz ulertuko ete joaguk?

Esaistak neskatoak non dagozan. Non lotu dozak?

Esaistak neskatoak non dagozan. Zer jazo dok?

Esaistak neskatoak non dagozan...

Gizonek arin bai arin hartu joezan.

Noiz ulertuko ete joaguk?

Noiz ulertuko ete joaguk?

Esaistak gizonak non dagozan. Non lotu dozak?

Esaistak gizonak non dagozan. Zer jazo dok?

Esaistak gizonak non dagozan...

Alde egin joen, gudea hasi dok.

Noiz ulertuko ete joaguk?

Noiz ulertuko ete joaguk?

Esaistak gudariak non dagozan. Non lotu dozak?

Esaistak gudariak non dagozan. Zer jazo dok?

Esaistak gudariak non dagozan...

Hobiruneen ganetik jabilk haizea.

Noiz ulertuko ete joaguk?

Noiz ulertuko ete joaguk?

Esaistak hobiruneak non dagozan. Non lotu dozak?

Esaistak hobiruneak non dagozan. Zer jazo dok?

Esaistak hobiruneak non dagozan...

Uda haizeak loratu eragin jozak lorak.

Noiz ulertuko ete joaguk?

Noiz ulertuko ete joaguk?

Esaistak lorak non dagozan. Non lotu dozak?

Esaistak lorak non dagozan. Zer jazo dok?

Esaistak lorak non dagozan...

Neskatoek arin bai arin batu joezan.

Inoiz ulertuko ete joaguk!

Inoiz ulertuko ete joaguk...!

P. SEEGER

### Berbalapikoa

**esaistak**= esan eistazu (hitanoa).

**dozak**= dira (hitanoa).

**dok**= da (hitanoa).

**joezan**= ebezan (hitanoa).

**joaguk**= dogu (hitanoa).

**joen**= eben (hitanoa).

**hobirune**= hilak lurperatuteko lekua.

**jabilk**= dabil (hitanoa).

**jozak**= dauz (hitanoa).

# ZELAN ESATEN jako zubi HONERI?



Erantzuna badakizu, ekarri eizu ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea abenduaren 18an amaituko jatzu eta.

Itzi zure izena eta tfno. zenbakia.

Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

## Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan

Aurrekoaren erantzun zuzenak:

1. ITXAS-ONDO (Enderika) etxean.

2.- 1930. urtea.

Irabazlea: **Veronica Olaskoaga.**

Amen dozuez **Veronica** eta bere laguna **TXOBERNE** tabernan afaria mauka-mauka jaten.



# TXOBERNE

Benta Alde, 148  
48130 BAKIO

Berton-bertokoa gozatuteko  
leku aproposa  
Bakioko txakolina, sagardoa  
eta jateko giro ezin hobiauan

Tfno.-zkia.: 94 619 41 81



## UKABILTXU (euskal ipuina)

Munduan beste asko lez, Zubiategi baserri zuri, txiki, politean Peru ta Mari, senar-emazteak, bizi ei ziran.

Baina Mari ilun eta goibel bizi zan, umerik ez eukalako. Marik, bere bihotzean negarrez, sarri askotan esaten eban:

- Ai Jaungoikoak umetxu bat emongo baleust, ukabila baino txikiagoa balitz be.

Eta Marik semetxu bat izan eban, txiker-txikerra, baina. Hain zan mirritxu eta txatxarra, ta Ukabiltxu izena emon eutsoen.

Jan ta jan, ta Ukabiltxu ez zan gorputzez handi egiten.

Behinola baten, Ukabiltxu lastategira joan zan, apur baten lo egiteko asmoz. Eta bedar onduen ganean bigun-bigun, loak hartu eban.

Aita lastategira etorri eta lotan egoana ikusi barik, bedarrekaz batera Ukabiltxu bota eban behien askara. Behietariko batek, bedarrak jatean, rau! Ukabiltxu be agora sartu eban.

Ukabiltxu lotatik behiaren agoan itzartu zan.

- Non naiagok ni? Amesetan naiagok ala? Ze demontre dok hau?, esaten eban bere artean, behin eta barriz.

Dana ilun-ilun, gauez iretargi barik basoan lez, egon zan. Behiak haginez, rau, rau, errotarriaren antzera, bedarrak txikituten ebazan.

- Nongo errotea ete dok hau?, Ukabiltxuk bere kolkorako esaten eban.

Geroago, behiak agoan mamurtutako bedarrak iruntsi egin ebazan eta bedarrekaz nahastean, Ukabiltxu be behiaren agotik urdailera igaro zan.

Behiaren urdaila zabala zan, beroa eta bigun-biguna ganera. Ukabiltxu toki barrian epel-epel eta gozo-gozo egoan. Astia emoteko, amak erakutsitako abesti politikak abestuten hasi zan:

**Errotabarriko Fernandok, urun gitxi eta zahi asko.**

**Ai, ai, ai, ai, ai, ai, Isidro Olabarrikoak be bai.**

Bien bitartean, Ukabiltxuren aita eta ama, estu ta larri, semetxuaren bila, bazter guztietatik, hara ta hona, zoratuta ebilzan.

- Ukabiltxu! Ukabiltxu! Gure seinetxu maitea, non zagoz?

- Eup! Eup! Hemen nago, behiaren urdailan.

- Baina, hortik noiz urtengo dozu, seinetxu?

- Behiak plaust! egingo dauanean.

Baina, zoritxarrez, behiak ez eban plaustik egiten eta ezin izan eban handik urten.

Ukabiltxu, behiaren urdailan hiru ordu luze egin ostean, heste luzera izaro zan. Heste hau bai zala benetan luzea eta iluna! Ukabiltxu bildurtu egin zan. Halako tunel estu ta ilunik!!

Heste luzetik heste lodira igaro zanean, hemen, Jaungoikoari eskerrak, arnasea hartuteko nasaitasun apurtxu bat eukan.

Azkenean, noiz edo noiz, halanbeharrean, behi txiki, politik plaust egin eta Ukabiltxu kanpora bota eban, baina ez garbiagi...

Holan bazan, ez bazan,

sartu daitela kalabazan.

Eta urten daiala

Landabarrenako aldatsan.

**Iniaki Martiartu**

### Berbalapikoa

**ilun**= gogoilun, betilun, itun, triste.

**goibel**= gogoilun, betilun, itun, triste.

**mirri**= argal-argal, medar, makar.

**txatxar**= makal, hutsaren hurrengo, kakanarru, ezgauza.

**bedar ondu**= bedar igar, bedar idor, bedar siku.

**naiagok**= nago. (hitanoa)

**dok**= da. (hitanoa)

**bere kolkorako**= bere artean, bere barruan.

**mamurtu**= agoan txikitu, xehetu.

**urdail**= sabel.

**zahi**= otaza, birrin. (ogia egiteko botaten jako)

**plaust egin**= bekorotzak behearen ganera jausikeran.

**heste**= errai.

**halanbeharrean**= zorionez, beharrik be.

## BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA




**ARANBARRI, Iñigo: Zapataren oihana**

Egilea 1996an EZLNk Chiapasen antolatutako Topaketetan izan zan. "Hauxe duzu han bizi, entzun eta ikusitakoen kontakizun nobelatua: miliziarrek, indigenak, herriak, hizkuntzak, iraultza... Hori baino gehiago da. Berriro hil nahi ez dutenen mundu liluragarria: Pancho Villa, Emiliano Zapata..."



**CALLEJA, Seve: Basajauna eta beste euskal ipuin eta legenda batzuk**

Euskal Herriko ipuinetaz asko entzunda be, ziu, irakurri ez doguna irakurri bat be. Ezaguna dogun Jaun Zuriaren istoriotik hasita liburu honetan 29 ipuin irakurri daiegeuz. Gure herriko nekazarien, arrantzaleen eta artisauen bizimodu tradizionala barneratzen deusku.



**O'CALLAGHAN i DUCH, Elena:**

**Dena aldrebes**

"Ezin da esan Toni ikasle sutua denik, ezta gutxiago ere. Baina zer egingo zenuke zuk Gizarte ikasgaiak ikasten saiatzen zarenean, liburuan agertzen den gizon bati bizarra pintatu eta desagertuko balitz? Eta gizon hori berbetan hasiko balitzazu?"

Liburu honeek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazuz. Erdi gurera!

# DATUZANAK

Badago zer ikusirik, badago zer entzunik gure Euskal Herri zahar eta txiki honetan, aor bada, osterantzean:

**AEK Eguna**, zemendiaren 8an, Legutianon.

**Busturialdeko Dantzari Eguna**, zemendiaren 14an, Busturian.

**Euskarari Bai II**, zemendia eta abenduan zehar, Euskal Herri osoan.

**Udazkeneko Bira**, urriaren 9tik abenduko 13ra bitartean, Nafarroan zehar.

**Udazkenean Folk**, zemendiaren 19tik 22ra, Donostian eta Iruñean.

**Ahuen Sinfonikoa (B. Lertxundi eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa)**, zemendiaren 25ean, Bilbon eta zemendiaren 26 ta 27an, Donostian.

**Durangoko Liburu eta Diskoen Azoka**, abenduaren 4tik 8ra, Durangon.

**Lekeitioko Zinemaldia**, abenduaren 4tik 7ra, Lekeition.

**Santo Tomas Azoka**, abenduaren 22an, Bilbon.

**Olentzeroa**, abenduaren 24an, Bakion.

**Euskarari Bai II Kanpainaren Ekitaldi Nagusia**, abenduaren 26an, Euskal Herriko bost uriburutan.


**Xiberoko Maskarada**, urtarriletik aprilera domekaro, Xiberoan zehar.

## BARREGAIK

### ETXERA

Senarra bildurtuta joan da etxera, eta beraren andreak itaundu deutso:

- Baina, zer jazo jatzu, ba?
- Hara, nagusiak, hasarre baten, inpernura bialdu nau.
- Eta, zuk zer...?
- Orduan etxera etorri naz.



### KAFEARI ERAGIN

Lagun batek besteari:

- Zelan eragiten deutsozu zuk kafeari?
- Eskoiaz.
- Txarri horrek! Nik beti erabilten dot koilarea.

### OSAGILEARENEAN

Zaurituak osagileari:

- Osagile jauna, txakur batek eskuan egin deust haginka.
- Ta, osakairik erabili dozu?
- Ez, arineketeari emon deutso-eta...

## badaezpadako jakingarriak

|  | telefono zkia.     | fax zkia.    |
|--|--------------------|--------------|
| Udaletxea  | 94 618 40 01       | 94 618 31 18 |
| Turismo Bulegoa                                    | 94 619 33 95       | 94 619 31 18 |
| Kultur Etxea                                       | 94 619 43 39       | 94 619 31 18 |
| Osakidetza (osagilea)                              | 94 619 42 07       | _____        |
| Udaltzaingoa                                       | 929 435 666        | 94 619 31 18 |
| <b>sos</b> Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak) | 112                | _____        |
| Taxia (Carlos Uriarte)                             | 94 619 41 79       | _____        |
| Taxia (Bilbao Ugalde)                              | 94 619 42 50       | _____        |
| Botikea  | 94 619 44 72       | _____        |
| Autobusa (Bizkaibus)                               | 94 454 10 98/05 44 | _____        |
| Autobusa (Túñez-Sánchez)                           | 94 688 31 71/03 21 | _____        |




10 ezbardintasunak

# EZETZ JAKIN!



Pelota honeetan bat ezbardina da. Zein da?




# ATZERA BEGIRA

Bai! Argazkiko horreek bakiotarrak dozuez. Guda aurreko ezpatadantzariak dira eta ez edozelangoak, gero! Batzokiko ezpatadantzariak ziran. Herriaren aurrean, lehenengoz, 1934. urteko Pazko Egunean, Aberri Egunez, egin eben dantzan, Tabernaldeko pelotalekuan egin be. Entsaioak orduko batzokia zan Longarai etxean egiten ebezan, eskolatik urten ta gero, jakina. Ez ziran herritik kanpo inora dantzan egiten joaten, Bakion bertan bakarrik egiten eben dantzan. Behinola baten, baina, Bizkaiko beste dantzari batzuek azkenik San Mames Athletic-en football zelaietan egin eben dantzan. Zoritxarrez, urte biko bizitza laburra baino ez eban eukiko ezpatadantzari talde harek, 1936. urtean hasiko zan gudeak asmo eta ames guztiak betiko moztu eta laskituko ebazan-eta. Urteak joan urteak etorri, eurentarikoren batzuk Gaztelugatxe eta Itxas-Alde Bakioko dantza taldeetako dantzari batzuen aita-aititik izan dira.

*Argazkia 1934. urtean goiko eleizako eleizpearen aurrean egin zan.  
Argazkian agertuten diranak hurrengo honeexek dozuez:*

1. Jose Mari Zabala (ARTETXE), 2. Rafael Garai (ARDANTZA), 3. Jose Luis Uriarte (URKITZAURRE), 4. Pedro Uriagereka (UGALDE), 5. Iñaki Abio (AZERETXOKO ERROTEA), 6. Jose Mintegi (ERRENTERIA), 7. Sabino Jauregizar (JAUREGIZARRA), 8. Feliziano Larrauri (MUXIKENE), 9. Felipe Markaida (AZERETXO), 10. Mateo Uriarte (URKITZAURRE), 11. Felix Erkoreka (AZERETXOGOITI), 12. Bitor Santana (SUMUSU), 13. Eustakio Uriarte (URKITZAURRE), 14. Leonardo Barturen (AGARRETXU), 15. Raimundo Barturen (ZAITUA BEAZKOA), 16. Juan Garai (BENGOLEA), 17. Manuel Larrazabal (GOIKOLEA).

(Argazkia: Eli Zubizarretak itzita)



**OHARRA:** ATZERA BEGIRA arlo honetan agertutako aurreko argazkiak:

-23. zenbakikoa: Juan Ormazak itzita.

-24. zenbakikoa: Santi Apraizek itzita.